



## **ESKOLAKO OHARRAK**

### **JANGELA ETA ORDUZ KANPOKOAK**

**Hezkuntza Sailak, aste honetan "COVID-19ari aurre egiteko aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eskola-jantokietan" izena duen dokumentua argitaratu du web orrian. Dokumentu hau emailaz bidali dizuegu bai eta web orrian zintzilikatu ere (www.elizalde.eus). Bertan, euskarazko bertsioan, 5. orrialdean, 2.4ean paragrafoan hain zuzen ere, ondorengoaz azaltzen da: "2.4.-Jantoki-zerbitzua erabiltzen duten ikasleek ezin izango dute ikastetxetik irten eskolaz kanpoko jarduerak egiteko." Hau dela eta, orain arteko gomendioa aqindu bihurtzen da; beraz, gure eskolak, Guraso Elkartearekin batera Batzorde Iraunkorrean eginiko ibilbidea bertan behera geratzen da eta jangelako ikasleek ezingo dute ekintza ezberdinak egitera atera. Barkatu eragozpenak.**

### **ARROPA**

Dakizuen bezala, gure eskola, eskola jasagarria da. Hori dela eta, erakunde ezberdinekin lanean ari gara: Caritas, El Watan edo Gurutze Gorria. Ikasturte hasi den honetan, aurreko ikasturtean gure ikasleek galdu zuten arropa guztia jaso dugu. Iraila bukatu arte, eskolako atezainaren sarreran edukiko dugu, bertatik pasa eta berreskuratu dezakezue. Ondoren, gobernuz kanpoko erakundeei deituko diegu arropa hori jaso dezaten.

### **EUSKARA**

2020-2021 Ikasturte honetan ere Udalak euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak emango ditu. Informatu eta egizu beste askok bezala, hobetu euskara! Eskaera egiteko EPEA: 2020ko urriaren 1etik 31ra. Informazio gehiago Oiartzungo Udaleko **Euskara Zerbitzuan: 943493842/ euskara@oiartzun.eus**

**euskaraz  
bizi  
nahi dut**

### **MUSUKOA ETA URA EDATEKO BOTILA**

COVID19a dela eta, gomendagarria da zuen seme-alabek, eskolara bada ez bada ere 2. musukoa ekartzea. Hau da, ikasleak bere musukoa galduko balu edo ekintzaren bat egiten zikinduko balu, gomendagarria da beste bat edukitzea. Bestalde, ura edateko edalontzi propioa edukitzea ere garrantzitsua da, gaixotasunik kutsa ez dadin.



### **ZORRIAK**

Zorriak azaldu dira berriz eskolan. Hemen transmititzen dira ikasleak elkarrekin daudelako. Jakina da, zorriak edukiz gero zein den jarraitu beharreko tratamendua. Guraso batzuen aldetik kexa azaldu da. Alegia, beren seme-alabei tratamendua egin arren, behin eta berriro azaltzen direlako. Askotan aztertu dugun gaia da eta eskolak tratamendua egiteko aholkua eman besterik ezin du egin. Mesedez ongi begiratu zuen seme-alaben buruak zorriak desager daitezen.



